IPUIN MUSIKALAK

1. Sarrera, zergatia, justifikazioa

Musika lantzeko material gutxi eta zaharkitua dagoela ikusita, R400 honek buruan ditudan ideiak material lagungarri bihurtzeko aukera ezin hobea eskaintzen dit.
Musikaren ikuspuntutik, ipuin musikalek aukera piloa ematen dute: erritmoa, musika-hizkuntza, musika-tresnak...
Horregatik, ipuin musikalak prestatzea erabaki dut.

2. Maila

HH, 1. zikloa eta 2. zikloa.

3. Helburuak

- Ipuin musikalak zer-nolakoak diren ezagutzea.
- Talde-lana sustatzea.
- Egitura erritmikoak eta horien osagaiak (beltza, kortxea, isiluneak) ezagutzea.
- Perkusio-instrumentu txikiak ezagutzea.

4. Metodologia

Kurtsoen arabera, zailtasuna, edo ikasleak egin beharreko lana, handitzen joango da. Adibidez:

- HHn: irakasleak ipuina irakurri, ikasleek musika-tresnak jo.
- 1. zikloan: ikasleek irakurri eta musika-tresnak jo.
- 2. zikloan: ikasleek musika-tresnak aukeratu, asmatu edo egin, eta jo.
- 3. zikloan: ikasleek ipuin osoa asmatu eta egin.

Ipuina prestatu ondoren, beste ikasleen aurrean aurkeztuko dute. Bideoan grabatuko dute kontaketa, gero ikusi eta aztertzeko. Izan ere, funtsezkoa da autoebaluazioa.

5. Bibliografia

Ipuinen moldaketa neurea da, baina honako webgune hauetan aurkitu ditut:

Unidad didáctica: “Cuéntame un cuento”.
http://www.juntadeandalucia.es/averroes/cepjaen/publicacion-gt/GT-Cep/GT-publicacion/musica/materiales/reclico_en_musica/unidades_didacticas.pdf

Sonorización de cuentos y poemas.
http://redes.cepcordoba.org/mod/resource/view.php?id=2446

ANIMALIAK LAGUN

Musika tresnak

1. Etxea.....panderoa
2. Gizona.....klabeak
3. Txakurra.....triangelua
4. Zaldia.....txinatar kutxa
5. Oiloa.....kanpaiak
6. Katua.....kaskabelak

Aspaldi-aspaldian, animaliek artean hitz egiten zuten garaian, etxe batera (1) txakur bat heldu zen (3).

—Egun on, gelditu naiteke zure etxean bizitzen? —galdetu zion txakurrak etxeko jabeari.

—Eta zer egingo duzu jatekoa irabazteko? —erantzun zion jabeak (2).

—Umeek txakurrak gustuko dituzte; jolas egingo dut haiekin, eta, gainera, etxea zainduko dut: gauean lapurren bat etortzen bada... zaunka egingo dut!

—Ederto, laguntxo! txakurtegian gera zaitezke.

Eta txakurra (3), gizonarekin bizitzen (2) gelditu zen.

Hurrengo egunean, zaldi bat (4) heldu zen etxera.

—Egun on, gelditu naiteke zure etxean bizitzen? —galdetu zuen zaldiak.

—Eta zer egingo duzu jatekoa irabazteko? —erantzun zion jabeak (2).

—Zaldi indartsua naizenez... mendira zoazenean, nire gainean joan zaitezke. Horrela ez zara nekatuko!.

—Ederto, laguntxo! zalditegian gera zaitezke.

Eta zaldia (4), txakurrarekin (3) eta gizonarekin (2) bizitzen gelditu zen.

Hurrengo egunean, oilo bat (5) heldu zen etxera.

—Egun on, gelditu naiteke zure etxean bizitzen?—galdetu zuen oiloak.

—Eta zer egingo duzu jatekoa irabazteko? —erantzun zion jabeak (2).

—Sasoiko oiloa naizenez, zuk jateko arrautzak errungo ditut.

—Ederto, oilo maitea! oilategian gera zaitezke.

Eta oiloa (5) zaldiarekin (4), txakurrarekin (3) eta gizonarekin (2) gelditu zen bizitzen.
Beste egun batean, katu bat (6) heldu zen etxera.

—Egun on, gelditu naiteke zure etxean bizitzen? —galdetu zuen katuak.
—Eta zer egingo duzu jatekoa irabazteko? —erantzun zion jabeak (2).
—Katu zuhurra eta azkarra naizenez, etxeko sagu guztiak uxatuko ditut.
—Ederto, katu ausarta! sukaldean gera zaitezke.

Eta horrela gelditu ziren gauzak: katua (6), oiloa (5), zaldia (4) eta txakurra (3) gizonarekin (2) etxean bizitzen (1) gelditu ziren. Harrezkero, gizakiak animaliak lagun ditu inguruan, eta hobeto bizi da haiei esker; izan ere, lagundu egiten diote, eta janaria ematen.

Egia bada, sakelan sar, eta gezurra bada kontuan ez har.

1. Etxea……PANDEROA



2. Gizona…… KLABEAK



3. Txakurra……TRIANGELUA



4. Zaldia……..KAXA TXINATARRA



5. Oiloa……..KANPAIAK



6. Katua…….KASKABILOAK













EKAITZ

Musika-tresnak

1. Ekaitz.....panderoa
2. Lorea.....klabeak
3. Tximeleta.....kaskabiloak
4. Sugandila.....marakak
5. Txoria.....ur-txilibitua
6. Igela.....guiroa

Afrikako sabana zabalean lehoi bat bizi zen oso ausarta. Ekaitz zuen izena, (1) eta egun guztian saltoka ibiltzen zen.

Besteak ez bezalakoa zen Ekaitz: gainerako lehoi guztiak landan lasai-lasai zebiltzala, halako batean, korrika hasten zen alde batetik bestera; gero, bat-batean, lore polit baten ondoan gelditzen zen (2), edo tximeleta bati begira (3), sugandila bati (4), edo txoriren bati (5). Gauetan putzuetara joatea ere izugarri gustatzen zitzaion, igelak korroka egiten entzutera (6).

Ama oso kezkatuta zegoen Ekaitzek lagunik ez zuelako, eta horrela esaten zion:

—Zergatik ez zara beste lehoiekin jolasten? Zergatik gustatzen zaizu hainbeste bakarrik egotea?

Ekaitzek amaren hitzak entzuten zituen, baina orduan, korrika hasten zen alde batetik bestera; gero, bat-batean, lore polit baten ondoan gelditzen zen (2), edo tximeleta bati begira (3), sugandila bati (4), edo txoriren bati (5). Gauetan putzuetara joatea ere izugarri gustatzen zitzaion, igelak korroka egiten entzutera (6).

Urteak joan ziren, eta Ekaitz lehoi handi eta ederra bihurtu zen (1).
Egun batean zirkura eraman zuten. Agertokira irten bezain laster, jendea liluratuta gelditu zen hain lehoi itxurosoa ikustean.
Agertokian korrika joan-etorri batzuk egin zituen eta, bat-batean, seko gelditu zen burdin-hesiaren aurrean, begiak zuzen-zuzen zerbaiti begira (1).
Lehoi-hezlea alde batetik bestera mugitzen hasi zen orduan, Ekaitzen arreta bereganatu nahian, baina ez zegoen zer eginik.
Zeri demontre zegoen begira? Burdin-hesiaren atzean emakume batek buruan loredun kapela zeukanez, ba, lore haiexei zegoen begira (2).
Ekaitzek ez zuen zirku-lanetarako balio (1).

Gauzak horrela, Afrikako sabanara itzuli zen, eta hantxe bizi da. Halako batean, korrika hasten da alde batetik bestera; gero, bat-batean, lore polit baten ondoan gelditzen da (2), edo tximeleta bati begira (3), sugandila bati (4), edo txoriren bati (5). Gauetan putzuetara joatea ere izugarri gustatzen zaio, igelak korroka egiten entzutera (6).

Eta egia edo gezurra, bi begien erdian... sudurra.

1. Ekaitz.....PANDEROA



2. Lorea.....KLABEAK



3. Tximeleta.....KASKABILOAK



4. Sugandila.....MARAKAK



5. Txoria.....UR TXILIBITUA



6. Igela.....GUIROA











Euria behar zuen herria

Musika-tresnak

1. Jendea..... karraka
2. Musika-taldea..... xilofono edo metalofonoa
3. Umea..... kanpaiak
4. Euria..... euri-makila

Herri txiki-txiki batean lehorte izugarria zeukaten; aspaldian ez zuen euririk egiten (4). Lurra gorrituta eta abereak egarri, ogia egiteko irina ere falta zuten, eta jendea goseak amorratzen zegoen (1).

Egun haietan, musika-talde bat heldu zen herrira; batetik bestera txanpon batzuen truke abesten eta musika-tresnak jotzen ibiltzen ziren musikari haiek (2), baina herri txiki hartako jendeak ez zuen musika entzuteko inolako gogorik.

—Ez dugu ulertzen! —esaten zuten musikariek— ez zarete konturatzen musikak arazoak konpontzen laguntzen duela?

Herriko jendeak, ordea, ez zien kasurik egiten (1), eta musikariek lehortea zegoenik ez zekitenez... ezin zuten ulertu!

Halako batean, ume bat hurbildu zitzaien, eta zer gertatzen zen azaldu zien (3):
—E, lagunok! Izugarrizko lehortea dago, euririk ez du egiten —esan zien isilka. (4)
—Euririk ez? (4) —erantzun zuten musikariek harrituta.
—Hilabeteak pasatu dira azken aldiz egin zuenetik, eta jendea oso kezkatuta dago; lurrak ez du ematen, eta herrian gose handia dago...
—Gari barik, ogirik ez, jakina! —jarraitu zuten musikariek— hau da deskalabrua!
—Bai… zeruan hodeiak egon badaude; asko, gainera. Baina ez du euririk egiten —esan zuen umeak (3).

Musika-taldearen zuzendaria pentsatu eta pentsatu ibili zen (2), eta azkenean esan zuen:

—Egon lasai, badakit zer egin: mendi-tontorrera igo eta ahal dugun musikarik alaiena joko dugu. Ea hodeiak poztu eta euria isurtzen duten!

Eta horixe egin zuten! Musikariek mendirako bidea hartu zuten, eta, herriko biztanle guztiak atzetik zituztela, tontorreraino heldu ziren. Han, doinu alai bat jo zuten (2). Hodeiei bihotza samurtzen hasi zitzaien; eta pixkanaka-pixkanaka, barrezka hasi ziren, eta handik gutxira, barre-algaraka, malkoak isurtzeraino barrearen barrez. Euria ari zuen! (4)

Handik aurrera, herri hartako biztanle bakoitzak musika-tresna bat jotzen ikasi zuen, eta harrezkero, mendira txandaka igotzen dira musika jotzera, hodeiak poz-pozik egon daitezen.

Egia bada, sinets; gezurra bada, ez sinets.

1. Jendea.....KARRAKAK



2. Musika-taldea.....XILOFONOA



3. Umea.....KANPAIAK



4. Euria.....EURI MAKILA